

Anna Galiena aktore italiarra, *Senza pelle* filmeko eszena batean.

Galiena eta Esquivel izango dira Zinemaldiko epaimahaikide

Hansel, Herrero, Makavejev, Shivas eta Tavernierrekin batera

Erredakzioa / Donostia

Zazpi lagunek osatuko dute Donostiako 47. Zinemaldiko epaimahaia. Bertrand Tavernier zuzendaria izango da epaimahaiko buru, eta, harekin batera, Laura Esquivel, Anna Galiena, Marion Hansel, Gerardo Herrero, Dusan Makavejev eta Mark Shivas-ek erabakiko dute aurtengo sariak nori eman.

LAU zuzendarik, aktore batek, ekoizle batek eta idazle batek osatuko dute aurtengo Zinemaldiko epaimahaia, irailaren 16tik 25era bitartean. Aurreko asteetan jakin genuen Bertrand Tavernier zuzendari frantsesa izango dela epaimahaiko burua, eta atzo beste sei epaimahaikideen izenak jaso genituen.

Laura Esquivel idazle mexikarrak lan egin du zinemaren. Haren eleberririk ezagunenetakoa bat, *Como agua para chocolate*, zinemara eraman zuten, eta filmaren

gidoia Esquivelek berak moldatu zuen.

Anna Galiena aktore italiarra ezaguna da *Le marie de la coiffeuse* eta *Jamón, jamón* filmengatik. 1994an Zinemaldian izan zen, *Senza pelle* lanarekin. Europako aktore-rik sentsualenetako bat da.

Marion Hansel izango da epaimahaiko hirugarren emakumea. Belgikan bizi den zuzendari frantses horrek zenbait film ezagun egin ditu, azkena *The quarry*, filmik onenaren saria jaso zuena Montrealgo zinemaldian.

Dusan Makavejev Jugoslaviako zinemagile berezienetakoa da. Haren zinema ez da batere ortodoxoa. Drama, ukitu erotikoa eta umorea nahasten ditu, eta Europako ekialdean desagerturiko erregimenak zorrotz kritikatzeko ditu. *W.R.: Misterije organizma* da haren film ezagunena.

Gerardo Herrero zinemagile espainiarrak *Malena es un nombre de tango* eta *Territorio comanche* zuzendu ditu, besteak beste, eta Espainiako Zinema Ekoizleen Federazioko lehendakaria da.

Azkenik, Mark Shivas ekoizle ingelesak zerikusirik handia izan du zinema britainiarraren berpizkundean azken bi hamarkadetan. Jerzy Skolimowskiren *Moonlighting* eta Paddy Breathnachek *I went down* ekoitzi ditu Shivas-ek, besteak beste.

l a b u r r e a n

BERTSOLARITZA

■ Pello Esnalek irabazi du aurtengo Basarri Bertsopaper Lehiaketa, Ekaitz Goikoetxearen aurretik

ZARAUZKO Udalak antolatzen duen Basarri Bertsopaper Lehiaketaren aurtengo irabazlea Pello Esnal izan da. Esnalek *Gaur urtebete* izenburuko bertso sortarekin irabazi du. *Zuek horrela ikusi eta* doinua jarri die Esnalek bertsoei. Bigarren tokian Ekaitz Goikoetxea geratu da, *Bizitza minutuz minutu* bertsoekin. *Trumoi ortzi beltzean* hoska doinua erabili du Goikoetxeak. Sari banaketa irailaren 3an egingo da, 22:00etan, Zinema pilotalekuan, Bertsolari Gazteen 23. Txapelketa-Lizardi Sariaren barnean. x

KOMIKIGINTZA

■ Raymond Poivet marrazkilari frantziarra zendu da, 89 urte zituela

RAYMOND POIVET komikilaria atzo hil zen, 89 urte zituela. Frantziako zientzia-fikziozko lehen komikia sortu zuen Poivetek: *Pionniers de l'espoir*. Egile emankorra izan zen, eta egunkari askotan argitaratu zituen binetak; *L'Aurore*, *France Dimanche*, *Samedi soir* eta *L'Humanité*-n, kasu. Haren obrarik ezagunenak *Cristobal Colon*, *Robinson Crusoe* eta *Napoleon* izan ziren.

M U S I K A

■ Gram Parsons omenezko diskoa grabatu dute hainbat artistak, tartean Beck, Wilco eta Costello

GRAM PARSONS 70eko hamarkadako country rock abeslariaren omenezko diskoa grabatu dute hamahiru artistak. *Return of the grievous angel* izenburua du diskoak, 1973an zendutako musikariaren diskorik ezagunena gogoratuz (*Grievous angel*). Parsons bakarkako diskoetatik zein *The Flying Burritos* eta *Byrds*ekin grabatutakoeetatik hartutako kantuak jo dituzte. Kasu batzuetan bi artista bildu dira: Emmylou Harris eta Beck, Chris Hillman eta Steve Earle, Evan Dando eta Juliana Hatfield, eta Whiskeytown eta *The Rolling Creekdippers*. Horiez gain, *Cowboy Junkies*, *Wilco*, *Elvis Costello*, *Lucinda Williams*, *The Mavericks*, *The Pretenders* eta *Gilliam Welch* ere ageri dira diskoan.

A N T Z E R K I A

■ Arlekin maskararen sortzailearen omenezko ekitaldian parte hartuko du Dario Fo italiarrak

DARIO FO antzerki idazle eta Literaturako Nobel saridunak bakarriketa bat irakurriko du Tristano Martinelliren omenezko mintegi batean. Martinellik Arlekin maskara asmatu zuen XVI. mendean. Mintegia datorren astean egingo da, Mantua hirian (Italia), eta Italiako antzerkigintzako jende ezagunak hartuko du parte: Ferruccio Solarik, adibidez. *Hellequin*, *Harlekin*, *Arlecchino* monologoa irakurriko du Fok; 1986an Veneziako Biurtekoan aurkeztu zuen monologo bera, hain zuzen. Ikerketen arabera, 1584an agertu zen Martinelli lehen aldiz Arlekin itxurarekin agertoki batean. Frantziako herri ipuinetatik hartu zuen izena, eta jantzieta mirabeen grisa Erdi Aroko bufoien kolore argiekin nahastu zituen.